

Agurra



Beste herritar askok bezala, gustora hartzen dut nik ere, *Oarso* aldizkaria urtero. Bere orrialdeek, Errenteria bizirik dagoen herria dela erakusten dute; gurea, mugimendu eta nortasun handiko herria dela.

Herritar askoren ekarpenak biltzen ditu aldizkariak eta urte osoan zehar ere herritar askoren parte hartzeari esker, mota, neurri eta kolore ezberdinetako hainbat eta hainbat ekimen gauzatu ahal izan ditugu. Lerro hauen bidez, beraz, benetan eskertu nahi dizuet zuen lana, izan ere, guztion artean, bizitasuna Errenteriaren ezaugarri nagusi izatea lortu baitugu.

Oarso aldizkariak, gainera, harremanetan jartzen gaitu herritarrok. Batak kontatzen duena irakurtzen du besteak, sareak sortuz horrela. Eta gurea bezalako herri anitz batean, oso garrantzitsua da sare horiek sendo mantentzea: jada badaudenak zainduz eta berriak ehunduz. Alkate gisa, onartu beharra daukat, egunero-egunero guztiok saregile lanean dihardugula ikusteak pozik sentiarazten nauela.

Segi, beraz, sareak sortzen eta gozatu aldizkaria, zuek baitzarete orrialde hauetako protagonistak.

Julen Mendoza
Errenteriako Alkatea

Saluda

Como gran parte de la ciudadanía, yo también, recibo con muchas ganas la revista *Oarso* cada año. Sus páginas muestran que Errenteria es un pueblo vivo; que el nuestro es un municipio de mucho carácter y movimiento.



La revista recoge aportaciones de muchas personas de la villa. Asimismo, durante todo el año, hemos podido realizar tantas y tantas iniciativas de todo tipo, tamaño y color gracias a vuestra participación. Por ello, quisiera aprovechar estas líneas para agradecer, sinceramente, vuestro trabajo ya que entre todos y todas hemos hecho de la viveza la principal característica de Errenteria.

La revista *Oarso*, además, establece contactos entre los ciudadanos y ciudadanas. Lo que escriben unas personas es leído por otras, creando, así, cadenas de redes entre unos y otras. En un pueblo plural como es el nuestro, es muy importante que mantengamos fuertes estas redes: cuidando y mimando las que ya existen y tejiendo otras nuevas. Como alcalde, debo reconocer que me enorgullece el sentir que cada día todos y todas realizamos conjuntamente esta labor.

Seguid, por lo tanto, entrelazando redes y disfrutad de esta revista de la que sois protagonistas.

Julen Mendoza
Alcalde de Errenteria